Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 313

Azaroak 15, 2017

“Ametsa izateaz gainera, erantzukizuna da Realean jokatzea”

2 Irun atzo Irun Gaur
3 *Irun y sus gentes* liburua
4 Ficobaren inpaktua
6-7 Bizilagunak programa
8 Kirolak: Parkourra Irunen
9 Kirolak: Mariasun Quiñones
10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
11 Haurren leihoa
12 Gazteen lanak
13 La Basuren rap tailerrak
14 Gazte informazioa
15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CARMEN "MENCHU" GAL ORENDAIN

Margolaria. Irunen jaio zen 1919an. Gaspar Montes Iturriozekin ekin zien pintura ikasketei. 1932an, Parisera joan zen bizitzera, Académie A. Ozenfant eskolan ikastera.

Espainiako Gerra Zibilean zehar, Atharratze Sorholüzen bizi izan zen (Zuberoa). 1943tik aurrera hasi zen erakusketetan parte hartzen, baita atzerrian ere: Buenos Airesen, Rio de Janeiron, Sao Paulon, Habanan, Londresen, Venezian etab.

Sariak pilatuz joan zen garai hartan. Baina benetako kontsakrazioa, 1959an iritsi zitzaion, Espainiako Pintura Sari Nazionala irabazi zuenean. Lehen emakumea izan zen, sari hori lortzen. Hiru urte lehenago, 1956an, bigarren geratu zen.

2005ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Irungo Udaleko Urrezko Dominak jaso zituen. Irunen zendu zen, 2008.urtean. 2010ean, bere izena daraman erakusketa aretoa zabaldu zuen Irungo Udalak, Urdanibiako Ospitale zaharrean.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Irungo pertsonaien bilduma argitaratu du Agustin Moratek

270 gizon-emakumeren aipamena egin du egileak

Irunen jaiotako, edo hiriarekin lotutako hainbat gizon-emakumeren biografia laburrak bildu ditu Agustin Morate Zulaikak, *Irun y sus gentes* liburuan. Anaka Kofradiako kidea da Morate, eta elkarteak argitaratu du bilduma. Ylenia Benito Brontë liburu-dendako arduradunak idatzi du hitzaurrea, eta liburuaren aurkezpena ere ireki du, urriaren 25ean, CBA kultur gunean. "Irun hiria zer den irudikatzeko modu ederra da", baieztatu du Benitok.

Urtetako dokumentazio eta biltze lanaren emaitza da liburua. Egileak eskerrak eman nahi izan dizkie, iturri nagusi izan dituen lanen egileei. José Monjeri, alde batetik, 1986an Luis de Uranzu Kultur Elkarteak argitaratu zuen Irungo kaleen izenak liburuagatik. Mañu de la Puente kazetari ohiari, bestetik, Diario Vascon urtetan argitaratu izandako kronika sozialengatik. Gainerako iturriak, liburuko eranskinetan daude, Irungo alkateen eta idazkarien zerrenda luze batekin batera.

Irungo ehun pertsonaia bildu nahi izan zituen Moratek, hasieran, eta Irungo 100 izenburua jartzea pentsatu zuen. Laster konturatu zen, ordea, labur geratu zela. 270 daude azkenean, liburuan, horietatik 21, emakumeak. Kirolariak eta musikariak dira gehienak, bakoitzeko 29. Margolariak, kazetariak, politikariak, diplomatikoak eta beste zenbait arlotan nabarmendutako gizon-emakumeak daude. "Irunen jaio badira ere, hirian bizi ez direnak daude. Edo alderantziz, irundarrak ez diren arren, haien jarduera nagusia Irunen aurrera eraman dutenak", azaldu du Moratek.

Biografia labur bakoitzak argazkia du, ondoan, zuri-beltzean: "Argazkirik topatu ez dugunean, grabatuak edo pertsonaiarekin lotutako irudiak jarri ditugu", aipatu du egileak. Azalearako, Mariano Estornés Lasaren argazki bat hautatu dute: *Jaiak Irunen, San Pedro egunean, 1969ko ekainaren 29an*. "Ez du kalitate handirik, baina ondo irudikatzen du liburuaren izaera", argudiatu du Moratek. Edizioaren eta maketazioaren maila da, hain zuzen ere, liburuaren hutsunerik handiena.

500 ale argitaratu dituzte, eta 10 euroren truke daude salgai, Brontë eta Jaizkibel liburu-dendetan. Bildutako dirua, Anaka Kofradiaren jardueretara bideratuko dute. Pretentsio handirik gabe idatzitako liburua dela aitortu du Agustin Moratek: "Entretenitzeko helburua du. Luis de Uranzu parafraseatuz: edozein bizitza, xehetasunez eta soiltasunez kontatuz gero, atsegina eta entretenigarria izan daiteke".

Arinaren liburuen izenburu berbera

Morateren liburuak badu aurrekaririk. Izen ere, eta izenburu berarekin, hiru liburuko bilduma argitaratu zuen José María Arina Zapatak 1990eko eta 2000ko hamarkadetan. Argazki bilduma zabalak izan ziren, *Irun popular fotográfico* eta *Imágenes para el recuerdo* trilogiak bezala. Ehunka irundarrek utzitako argazkiak bildu zituen, eta iruzkin txikiak erantsi, hiriaren erretratu sozial modukoa osatzeko asmoz. Arinaren lekukoa hartu du orain Agustin Moratek. Bigarren argitalpena du, *Anaka tiene historia*ren ondoren.

Olaizola Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Urteko 34 milioi euroko inpaktu ekonomikoa du Ficobak, LKSren ikerketaren arabera

Bost gipuzkoarretik hiruk erakustazoka ezagutzen du

Erakustazokaren inpaktu ekonomiko eta soziala aztertu du LKS aholkularitza enpresak, Ficobako gerentziak eskatuta. Duela hamar urte egin zuten ikerketa, azken aldiz, eta aurten bildutako datuek agerian utzi dute Ficobaren garapena. LKSren datuen arabera, erakustazokaren inpaktu ekonomikoa zazpi aldiz biderkatu da, eta lau aldiz, sortutako enpleguen kopurua. Inpaktu sozialari dagokionez, Ficobaren inguruko ezagutzak eta iritziek hobera egin dute, hamarkada honetan.

Erakunde publikoek bultzatutako proiektua izan da Ficoba, 2000ko hamarkadaren hasieran eraiki zenetik. Diru-laguntza publikoak jaso zituen orduan, eta jasotzen ditu, gaur egun ere bai. "Horregatik, bidezkoa da jakitea inbertsio horien fruituak zeintzuk diren", argudiatu du Ander Sarratea Ficobako gerenteak. LKS aholkularitza enpresari eman diote ikerketa egiteko enkargua.

Iñaki Elzaurdi LKSko arduradunak azaldu du zer nolako metodologia erabili duten. "Ekarpen ekonomikoa neurtzeko, halako ikerketetan zabaldua eta egiaztatua dagoen metodologia klasikoa erabili dugu: fluxu ekonomikoak identifikatzea, eta epe zehatz bateko inpaktuak kuantifikatzeko, input-output taulak aplikatzea". Horretarako, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ekonomia Aplikatua saileko katedradunek eta doktoreek osatzen duten CEPREDE Iragarpen Ekonomikoen Zentroaren laguntza jaso dute.

Atera duten ondorio nagusia da Ficobak 34 milioi euroko inpaktu ekonomikoa sortzen duela, zuzenekoa eta zeharkakoa kontuan hartuta. Horietatik 28 milioi, EAEn. Hots, Barne Produktu Gordinaren %0,02. Bestalde, LKSren arabera, 222 enplegu sortzen ditu Ficobak urtero, zeharkakoak kontuan hartuta, beti ere. Gainera, lau milioi eta erdiko zerga-bilketa eragiten du EAEn. Horiek horrela, 2007ko datuekin alderatuta, zazpi aldiz handiagoa da BPGaren gaineko inpaktuaren balioa, eta lau aldiz handiagoa, sortutako enpleguen kopurua.

Ficobako jardueren eta bisitarien kopuruei erreparatuta ere, agerikoa da erakustazokak hamar urteko epean izan duen bilakaera. 2006an 81 ekitaldi egon ziren Ficoban, eta 76.357 bisitari gerturatu ziren horietara. 2016an, 247 izan dira jarduerak, eta 138.670, bisitariak. Guztira, 2003an ateak zabaldu zituenetik, 1.450.000 bisitari jaso ditu Ficobak.

Eragin sozialaren bilakaera

Ficobaren inpaktu soziala aztertzeko, 300 telefono-galdeketa egin dituzte, Gipuzkoa osoan. Elkarrizketatutako bost pertsonetatik hiruk, Ficoba ezagutzen duela baieztatu du (%63,2). Iñaki Elzaurdik nabarmendu du Donostiako Kursaalaren inguruko inkestan, galdera berdinari %70,7k eman ziola baiezko erantzuna. Aldea txikia da, beraz. Elkarrizketatutakoen %76k badaki erakustazoka Irunen dagoela, eta horietatik %51k, Ficobako jardueraren batean parte hartu izan du noizbait.

Antton Tomasena Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendariak baieztatu du lurraldeko entitate "klabe" horietako bat dela Ficoba. Gipuzkoarren iritzi positiboei garrantzi handia eman die: "Horrelako azpiegiturek, askotan, aitortza ekonomikoa edukitzen dute, baina soziala ez. Duela hamabost urte, gipuzkoar askok pentsatuko zuten Ficoba Bidasoarako onuragarria izango zela bakarrik. Denborak ezetz erakutsi du".

Pazientzia eskatu du Santanok

Irunen bertan ere, proiektuaren kontrako iritzi asko izan ziren, eta badira. Horien aurrean, José Antonio Santano Ficoba Fundazioko presidenteak "pazientzia" behar dela azpimarratu du: "90eko hamarkadaren amaieran, erakustazokak ezagutzeko bisitak egin genituen. Gogoan dut Basilean (Suitzan) egon ginenean, bertako erakustazokako arduradunek azpimarratu zigutela epe luzeko proiektuak direla halakoak. Ehun urte baino gehiago ditu Basileakoak. Ikusiko dugu, 60 edo 70 urte barru, Ficobaren egoera zein den".

Momentuz, Ficobak ateak zabaldu zituenetik hamalau urte pasa direnean, eragin ekonomikoan garapena izan du, baita hirian ere. Ficobari dagokio, Irungo BPGaren %0,2, eta 78 lanpostu sortzen ditu urtean Irunen, LKSren ikerketaren arabera. Datu ekonomikoak ontzat emanik, Ficobaren beste lorpen batzuk nabarmendu nahi izan ditu Santanok. Batetik, kudeaketa publiko-pribatuaren "adibide bikaina" dela baieztatu du: "Lan talde gaztea, modernoa eta profesionala du Ficobak". Bestetik, mugaz gaindiko lankidetzaren "sinbolo" bilakatu dela adierazi du: "Horren adibide, Frantziako hiri txikietako alkateen kongresua hartu zuela irailean".

Santanok gogorarazi nahi izan du, era berean, Ficobak mugaren inguruko eremua zeharo itxuraldatu duela: "Kamioien aparkalekua zen orubea, muga zaharraren hondarra". Iragan hura atzean utzita, Irungo Udalak hartu duen bide ekonomikoaren ikurra da Ficoba.



Irekiera berria

SAKURA

Buffet Menua

astelehenetik ostiralera
12:00etatik 16:00etara (jai egunetan izan ezik)

13,95€

astelehenetik ostiralera
20:00etatik 24:00tara (jai egunetan izan ezik)

18,95€

8 urtetik behera **8,95€**
(3 urtetik behera doan)

Larretxipi, 10 20304 IRUN
Tel 943 61 53 30

Elkar ezagutzeko aukera, mahai baten inguruan

Bertako familiek eta migranteek elkarrekin bazkalduko dute, Bizilagunak ekimenean

Martindozenea Gaztelekuan ere bazkaria antolatu dute, azaroaren 19an

Hiri berdinetan bizi gara. Eraikin berdinetan, askotan. Baina ez dugu elkar ezagutzen. Bizimodu paralelo horiek elkargune bat izan dezaten, Bizilagunak ekimena antolatu du SOS Arrazakeriak elkarteak, zazpigarren aldiz. Irunen, udaleko Gizarte Ongizatea arloaren eta Adiskidetuak Kulturarteko Elkartearen babesarekin izango da, azaroaren 19an. Elkarrekin bazkaltzeko bilduko dira bertako familiak eta migranteenak, bietako baten etxean.

Iaz 235 bazkari antolatu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoan, 587 familiarekin. Aurten, 250 bazkari dituzte helburu. Irunen, hamabost bazkari inguru izango dira, 30 familiarekin. Izena eman duten familiak elkartzeko, irizpide ezberdinak kontuan hartzen dituztela azaldu du Gerardo Carrere SOS Arrazakeriak elkarteko kideak: "Zaletasunak, afinitateak, familiako kideen kopurua, menderatzen dituzten hizkuntzak etab". Bazkari bakoitza antolatzeko, dinamizatzaile bana aritzen da. Aurten, Jon Aranguren lan horretan ariko da. Azaldu du, formazio baliagarria jaso duela: "Batzuetan, konturatu gabe, arrazistak diren estereotipoak erabiltzen ditugu, barneratuta ditugulako".

Estereotipo eta aurreiritzi guzti horiek apurtzea da, hain zuzen ere, ekimenaren helburu nagusietako bat. "Konturatzen zara askoz gehiago direla batzen gaituzten gauzak, banatzen gaituztenak baino", baieztatu du Sergio Corchón Gizarte Ongizatea arloko ordezkariak. Zenbait aldiz parte hartu du zinegotziak, eta balorazio baikorra egin du: "Oinarrizko kezka berdinak ditugu, eta erraza izaten da enpatizatzea. Abiapuntu bikaina da hori, estereotipoak alde batera uzteko". Alde bietakoak izaten dira aurreiritziak. Rocío Calderón Adiskidetuak elkarteko kide kolonbiarrak aitortu du: "Ezjakintasunetik hitz egiten dugu batzuetan, jendearen errealitateak ezagutu gabe. Mahai baten inguruan esertzea, bakoitzaren egoera eta zirkunstantziak ezagutzeko modua da". Latinoamerikarrak dira, hain zuzen ere, Irungo familia migranteetako asko, magrebtarrekin eta Ekialdeko Europako herrialdeetakoekin batera.

"Ezjakintasunetik hitz egiten dugu batzuetan, jendearen errealitateak ezagutu gabe"

Rocío Calderón, Adiskidetuak elkarteko kidea

"Euskal Herrian, kuadrillak itxiak dira, eta ez dugu irekitzeko joera handirik"

Alba Aranguren, parte hartzailea

Gastronomiak jendea biltzeko gaitasun handia du Euskal Herrian. Askotan, elkarteak izaten dira topagune. Bizilagunak ekimenean, aldiz, garrantzia ematen diote etxeetan biltzeari. "Giro intimoagoa sortzen da", adierazi du Carrerek. Ados dago Alba Aranguren. Iaz parte hartu zuen lehen aldiz, senideekin, harrera familia gisa: "Beste estereotipo bat izango da, baina uste dut neurri batean egia dela, euskaldunak oso itxiak garela. Gazteen artean, batez ere, ikusten da. Kuadrillak itxiak dira, eta ez dugu irekitzeko joera handirik, normalean". Etxean hartu zuten familian, beste neska gazte bat zegoen, eta berarekin hitz egitea oso "interesgarria" izan zela adierazi du Arangurenek: "Horregatik, familiako semealaba gazteak ere gonbidatu nahi nituzke parte hartzera".

Martindozenea Gaztelekuko langilea da Alba Aranguren. Bertan, Bizilagunak ekimenarekin bat egingo dute aurten, azaroaren 19an. Bertako gazteen eta migranteen arteko bazkaria antolatu dute. Harreman iraunkorragoak sor daitezke elkar ezagutza horretatik. Rocío Calderonek baieztatu du bere kasuan hala izan dela: "Gerora gehiagotan gelditu izan gara, bazkaltzeko, edo kafe bat hartzeko, giro lasaiean hitz egiteko".

“Atxiloketa bat bizi izan genuen iaz, ez da kasualitatea izango”

Jabier Muguruza, parte hartzailea

Salaketaren beharra azpimarratu dute

Jabier Muguruzak ere iaz parte hartu zuen lehen aldiz. Joan-etorriko esperientzia izan zela azaldu du: “Haien etxera gonbidatu gintuzten ondoren. Hura ere, esperientzia ederra izan zen, gurean pixka bat kikilduta egon zirelako. Haienean, berriz, beste modu batean ikusi nituen, askeago”. Nolanahi ere, Muguruzak ez du ahaztu iazko esperientziak alde iluna ere izan zuela: “Gurean izan genuen familiako semea atxilotu zuten, aireportuan. Ez dut uste bakarrak izango ginenik, ez da kasualitatea”. Izan ere, elkarguneak eraikitzeko aukera emateaz gainera, migranteek bizi dituzten zenbait errealitate gogor ezagutzeko ere balio dezake Bizilagunak ekimenak. “Salaketa ere garrantzitsua da”, azpimarratu du Muguruzak.

Gerardo Carrere SOS Arrazakeriak elkarteko kideak gogorarazi du Atzerritartasun Legeak migranteei bakarrik eragiten diela. Zenbait adibide eman ditu: “Egoera irregularrean dagoen jendeak urte beteko lan kontratua behar izaten du egoera erregularizatzeko. Gainera, erregulartasun egoera hori bera oso hauskorra da, erraz galdu dezakete, lan kontratua amaitzean, esaterako”. Baina legeez gainera, bizilagunen mesfidantzek ere eragiten dietela nabarmendu du: “Zailtasun handiak dituzte etxebizitza edo lana lortzeko. Etxebizitzen jabeek pentsatzen dute migranteak ez direla fidatzekoak, eta ez dizkiete alokatzen. Lanarekin, berdin. Aisialdi guneetan ere bai, diskoteka batzuetan, adibidez”. Guzti horiek gainditzeko, aukera aproposa eskaintzen du Bizilagunak ekimenak.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Mugimendu eraginkorraren bila

Parkourraren oinarriak hedatzeko helburua du Lotzen ADD elkarteak

Hiriko zenbait puntutan aritzen dira, jauzika eta korrika, kirol arropa zabalarekin. Jende gehienak ez du hori baino askoz gehiago ikusten. Izatekotan, kalea okupatzen dutela, enbarazu egiten dutela. Irudi horren kontrapuntu izateko, Lotzen ADD elkartea eratu zuen, duela hiru urte, Irunen parkourrean ibiltzen den kolektibo batek. Dani Sampayo dute buru, estatuko parkourrean aitzindari izan den irundarra.

Yamakasi film frantziarrari esker ezagutu zuen Sampayok parkourra. 2000ko hamarkadaren hasieran izan zen. Pelikulak, Parisko *banlieue* edo kanpoaldeko auzoetan zabaldua zegoen parkourraren berri ematen zuen. Hasieratik harrapatu zuen, praktika haren oinarriek erakarrita: "Mugimendu natural, indartsu, eraginkor eta segurua bilatzea da funtsa". Horretarako, prestaketa fisikoa eta teknikoa egiten dituzte. Oinarrian, parkourra ez da lehiakorra. "Egia da, azken urteotan lehiaketa formatu ezberdinak sustatzen ari direla, marken interesagatik, batez ere", aitortu du Sampayok: "Baina guri ez zaigu interesatzen erakustea nor den hobea, nork egiten duen jauzi handiagoa. Alde batetik, arrisku fisikoa dakarrelako horrek. Bestetik, frustrazioa eragin dezakeelako".

Estatu mailan aitzindari izan zen Irun, duela hamabost urte, parkourrak estatuan lehen urratsak ematen zituen garaian. Gaur egun, erreferente izaten jarraitzen du, Lotzen ADD elkartearen eskutik. Parkourraren oinarriak hedatzea du helburu, egitura juridiko sendoago batekin. "Orain, gure eskaintza seguruagoa da, instituzioentzat, ikastetxeentzat, gurasoentzat etab.", argudiatu du Sampayok. Izan ere, ikastaroak eskaintzen dituzte, haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat. Eskoletan aritu izan dira, eta integrazio saio bereziak egin dituzte, besteak beste, migranteen kolektiboekin.

Azken urteotan zabaldu izan den irudia deseraiki nahi dute, okerra dela uste baitu Sampayok: "Youtuben dauden bideoek ez dute asko laguntzen: eraikinetatik eta teilatuetatik jauzi egiten duen jendea, abandonatutako eraikinetan sartzen dena, gazteak poliziaren aurrean korrika egiten... Ikuskizuna besterik ez da hori". Lotzen ADDko kideentzat, parkourrak lotura handiagoa du kulturarekin, hezkuntzarekin eta elkarbizitzarekin. "Parkourra ez da kalera arropa zabalarekin irtetea, nahi duzun lekuan salto egitera. Mugimenduak kudeatzea, hiri espazioan elkar bizitzea, era arduratsuan entrenatzen ikastea... Hori da parkourra", azaldu du Dani Sampayok.

Ehun lagun inguru aritzen dira ikastaroetan

Urko Alvarez Lotzen ADDko presidenteak uste du gaur egun Irunen parkourra egiten aritzen den jendea zenbatzeko modurik ez dagoela. Ikastetxeetako patioetan, esaterako, gero eta haur gehiago ikus daitezke saltoka: "Debekatu beharrean, teknikak irakatsiko dizkien jendea bilatzen hasi dira ikastetxeak". Lotzen ADDk eskaintzen dituen ikastaroetan, ehun bat lagun aritzen direla baieztatu dute. Entrenamenduak, jendearen mailaren eta esperientziaren arabera egokituak izaten direla azaldu du Dani Sampayok: "Gero, exijentzia maila zuk jartzen diozu zure buruari, helburuen arabera". Arlo fisikoaren eta teknikoaren arteko oreka bilatzen da parkourrean: "Oztopoen artean mugitzeko, gutxieneko ahalmen fisikoa behar duzu. Teknikak, gorputza babesteko modua eta konfiantza ematen ditu".

Beñat Jauregik helduen ikastaro batean parte hartzen du, Elatzeta Ikastetxeko gimnasioan. Duela hiru urte hasi zen, elkartea sortu zen garaian, parkourraren berri sare sozialetan eduki ondoren: "Garai hartan eskalada egiten nuen, baina labur geratzen zitzaidan. Gorputzak barietate gehiago eskatzen zidan, mugimendu aldetik". Parkourraren malgutasunak, askatasunak erakarri zuen, beraz: "Ez dago prefijatuta zer egin behar duzun ingurune konkretu batean. Jolas puntu bat ere badu. Pixkanaka, ikasten duzu identifikatzen dauzkazun elementuekin zer egin dezakezun. Parkour ikuspegi deitzen zaio horri". Urko Alvarezek berretsi ditu Jauregiren hitzak: "Kalea beste modu batera ikusten da, egia da. Askotan gertatu izan zait, neska lagunarekin paseatzen ari nintzela, txoko bat ikusi, eta bertan zein jauzi egin daitekeen pentsatzen hastea".

Elatzetako gimnasioa ez da parkourraren eremu naturala, kalera egokitzea baita haren premisetako bat. Hala ere, entrenatzeko egokia dela baieztatu du Dani Sampayok: "Praktika demokratizatzeko modua da, edonorentzat eskuragarria izan dadin, eta entrenamendua, mailaren arabera egokitu ahal izan dezagun". Parkourrak, gizarterentzat onuragarriak izan daitezkeen balioak dituela uste dute Lotzen ADDko kideek.

“Ametsa izateaz gainera, erantzukizuna da Realean jokatzea”

Emakumeen Lehen Mailako errebelazioa izan zen Mariasun Quiñones (Hondarribia, 1996), iaz. Sari hori eman dio Marca egunkariak. Denboraldi bikaina eduki zuen Realeko atezainak, eta Europako Txapelketa jokatzeko aukera ere izan zuen, Espainiako selekzioarekin, Holandan. Mariñoko harribitxia da, futbol elkarteak urtetan egindako lanaren seinale.

MARIASUN QUIÑONES,
Realeko atezaina

Argazkia: Estudio Gover

Hondarribian eman zenituen lehen urratsak?
Bai, ahizparekin, familiarekin eta lagunekin. Lehen pausoak hondartzan eta Puntal auzoan eman nituen. Lehen futbol taldea Hondarribia izan zen. Gero Mariñora joan nintzen, eta oso oroitzapen onak ditut. 13-17 urte arteko epea ez da erraza izaten. Horregatik, garai horretan egindako lagunekin harreman estua egiten da. Nerabezaroa pasata Realera pausoa ematea, Mariñori esker izan da.

Bigarren Mailara igotzea lortu zenuten, orduan. Esperientzia polita?
Bai, baina zaila, aldi berean. Horrek are balio handiagoa ematen dio igoerari. Zorterik onena opa diet Mariñoko neskei. Partidaren bat ikusten egon naiz, eta oso ondo ari dira, egia esan. Ea berriro igotzeko aukera duten.

Nola iritsi zen Realaren deia?
Teknifikazio lana egiten du Realak, jokalari gazteak eramaten dituzte Zubietara entrenatzera. Fitxatu aurretik, astero-astero joaten nintzen ni. Hala ere, ezustekoa izan zen, ez nuen espero. Ni asko disfrutatzen ari nintzen Mariñon. Javier Mariño presidenteak deitu ninduen lehenengo, eta Realeko kirol zuzendariarekin bildu ginen jatetxean. Ea Realarekin jokatu nahi nuen galdetu zidan, eta baiezkoa eman nion.

Zertan antzematen da Mariñoren eta Realaren arteko aldea?
Askoz handiagoa da kluba, arlo guztietan nabaritzen da. Oso profesionalizatua dago dena. Bakoitzak bere rola du, eta bere funtzioak betetzen ditu. Niretzat, mediku zerbitzua beti laguntzeko prest edukitzea, adibidez, diferentzia handia da.

Maila handiko prestatzaileak edukiko dituzu, gainera. Asko hobetu duzu?
Bereziki, arlo mentalean. Buruak klik bat egiten du, eta sinetsi egiten duzu. Garai batean, Realean jokatzea ametsa besterik ez zen. Gaur egun, erantzukizuna ere bada. Entrenamenduak kalitatezkoak dira, baina norberak berea eman behar du, bestela ez dago hobetzerik.

Urte bikaina izan zenuen iaz. Jokalari errebelazioaren saria jaso duzu, eta Eurokopa jokatzeko aukera ere eduki zenuen.
Atezainentzako entrenatzaile berezia jarri ziguten, eta eguneroko lanari esker, asko hobetu nuen. Gero Eurokopa jokatzeko aukera eduki nuen. Esperientzia horiek poztu egiten zaituzte, baina ingurukoak harro senti daitezen ere lortzen dute. Hori 21 urteko neska bati gerta dakiokeen gauzarik ederrena da.

Ahizpa bikiarekin jokatu izan duzu txikitatik, Realera joan zinen arte. Nolakoa izan da bideak banatzea?
Bakoitzak bere bidea jarraitu du, baina biak futbolean gabiltza, nahiz eta talde ezberdinetan ibili. Berak nigandik ikasten du, eta nik harengandik. Bera aurrelaria da, ni atezaina, eta futbolari beste ikuspegi batetik begiratzen laguntzen dit. Polita da noizean behin elkarren kontra aritzea. Iaz gertatu zen, berak ere Lehen Mailan jokatu zuelako, Oiartzunekin.

Aurtengo denboraldiari begiratuta, azaroaren hasierara arte ez duzue punturik bildu. Gogorra izaten ari da?
Bai, bagenekien hasiera zaila izango zela, aurkari gogorrak genituelako, lehen hiru jardunaldietan. Espero ez genuena zen hurrengo lauetan ere ez genuela punturik eskuratuko. Baina baikorrak izan beharra dugu, bestela, puntuak biltzeko aukerak pasako zaizkigu.

Ez duzue aldaketa handirik egin, iazko taldearekiko. Zer gertatu da?
Egia da. Hiru fitxaketa egin ditugu, eta ondo egokitu dira. Ez dakit, ezin dugu aitzakiarik jarri, aurrera egin beharra dugu. Arazo zehatza zein den ez dakigu, eta azkenean, hori da gehien larritzen gaituena. Giltza non dagoen ahalik eta azkarren aurkitzen ahalegindu behar dugu.

Ligaren maila handituz doa etengabe, baina oraindik ere, zaila da estatuan profesionala izatea, emakumeen futbolean.
Oso zaila da. Futbola gure bizitzaren parte bat baino ez da, ikasten edo lanean gabiltzalako. Dirua beharrezkoa da bizitzan, eta futbolak ematen ez baldin badigu, beste nonbaitetik atera beharra dugu. Pausoak eman dira, baina poliki-poliki doa. Gure helburua ez da gizonezkoen mailara iristea, gure lana saritua izan dadin lortzea, baizik. Noizbait emakumeak ere futbolaz bizi gaitezkeela esan ahal izatea, azken finean.

Zuk zer eskatzen diozu futbolari? Nora heldu nahi zenuke?
Nire helburua da pixkanaka hobetuz joatea. Aurrera pausoak ematea, atzera egin gabe. Epe laburrean, Reala egoera larri honetatik ateratzea.

Beste herrialde batzuk dira erreferentzia, emakumeen futbolean. Atzerrira joatea buruan al duzu?
Momentu honetan ez. Baina lan egiten jarraitu behar dut, horrelako aukeraren bat sortzen baldin bada, prest egoteko, eta pausoa eman ahal izateko.

Donostia-Orio-Zarautz

GORKA MARTINEZ
unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: 4 ordu eta erdi (geldialdirik gabe).
Distantzia: 21,5km.
Desnibel metatua: 560m.
Zailtasuna: Erraza. Luzea bada ere, ez da desnibel handia gainditu behar. Zailtasun teknikorik ez dago.

Gipuzkoako hiriburutik aterata, Zarautz udalerri ederrera iritsiko gara, ibilbidearen amaieran. Bidean, Mendizorrotz (Igeldo), Orio herria, eta Beastegi/Talaimendi zeharkatuko ditugu. GR-121 xenda eta Donejakue bidea uztartuko ditugu.

Kontxako badian hasiko da ibilbidea, Ondarreta hondartzan. GR-121aren eta Santiago bidearen seinaleak bilatuko ditugu (zuri-gorria eta horia, hurrenez hurren). Errepidean gora eramango gaitu bideak hasieran, baina saihesbide batean alde batera utziko dugu. Igeldoko tontorrera iristen garenean, asfaltatutako pista bat hartuko dugu, mendilerroa alderik-alde zeharkatzen duena (Ordu bat)

Pista zabala xenda estu bilakatuko da, eta mendian behera eramango gaitu, Mendizorrotz (416m) mendiaren tontorra alde batera utzita. Oriora iritsi aurretik, aldapa gogor bat igo beharko dugu, San Martin auzora iristeko. Bertatik, Orioren ikuspegi ederraz gozatuko dugu (Bi ordu eta erdi).

Herritik pasa ondoren, Oria ibaiaren gaineko zubia zeharkatuko dugu, Oribarzar hondartzara doan bidea hartuko dugu. Bertatik, eguneko azken maldari aurre egingo diogu (Hiru ordu). Txakolin mahastien artean joango gara mendian gora. Zarauzko kanpinera iritsiko gara, eta han, GR-121 bidea hartuko dugu. Malla Harria zamalekura eramango gaitu, eta bertatik, Zarautzen ikuspegi ederra izango dugu. Eskaileretan behera egingo dugu ondoren, Zarauzko hondartzaraino (Lau ordu eta erdi).

Belaskoenea LH2

PARKOUR

Parkour edo "**lárt du deplacement (mugimenduaren artea)** Frantzian asmatutako kirol diziplina da, **David Bellek** sortua. Haren asmoa ez zen kirol bat sortzea, baizik eta militarrei entrenatzeko teknika berri bat eskaintzea.

Parkour hitza, *parcours* frantses hitzatik dator eta «ibilbidea» esan nahi du. Parkour egiteko oztopoak dituzten ibilbideak gainditu behar dira. Militarrek edota suhiltzaileek erabiltzen dituzten entrenamenduetarako ibil bideak dira. Kirol hau praktikatzen duenari, **Traceur esaten zaio**. Batzuetan, Traceurs-en topaketak egiten dira, hauek, praktikatzaileek antolatzen dituzte beraien artean entrenatzeko.

Europan, parkourrean ibili zen lehendabiziko persona, **Georges Hébert** izeneko frantses bat izan zen.

Disziplina honen berezitasuna bere sinpletasunean datza. Kirol hau egiteko zapata on batzuk baino ez dira behar; zapaten zolaren iraunkortasuna bereziki garrantzitsua da eta horretan jartzen dute ardura gehien parkourtarrak. Arropan ez da behar inolako berezitasunik; praktikatzailea eroso sentitzearekin nahikoa da, ez diezaion trabarik egin eta besterik ez. Horrela, bakeroak, adibidez, ez dira erabiltzen, aski malguak ez baitira.

BELASKOENEA IKASTETXEA - 2. ZIKLOA

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK

Félix Manso
IBARLA

Meaka auzoa, 9 ~ 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

Euzkaraz, Irunen barrena

Santuen eguneko biyamonian

Gure amak esaten-tzuen:
«Santuen eguneko biyamonian anima gaxuak daudezte deskantso aundiyan. Guk errezatu dezagun aientzat lanian jarri ditzagun betiko zorionian».

Irungo S.R.A andereari jasoa (1959-XI-1).
(El Bidasoa, 1960-I-16)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Eguzkitza

C E N T R O
KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

LA BASU, rap abeslaria:

“Sentimenduak kaleratzeko erreminta da rap-a”

Ez ohiko irakaslea dute Irungo Mendibil Formazio Zentroko Ile-Apainketa zikloko ikasleek. Hasieran mesfidantzaz hartu zuten, baina gaur egun, miresmenez hitz egiten dute La Basuri buruz. Ezizen horrekin ezaguna da Elena Caballero bizkaitarra (Etxebarri, 1983), rap-aren munduan, eta azken aldian, handik kanpo ere bai. Rap tailerrak ematen ditu, eta urriaz geroztik, Letxunborro hiribideko Mendibilen ari da.

Nolakoa da zure ikasleen taldea?
Hamabost neska dira, 14-17 urte artekoak. Ile-apaintzaile izateko ikasten ari dira. Ikastetxea utzi dute denek, eta hemen amaitu dute, ikasteko gogorik gabe. Haien motibazioa pizteko bidea izan daiteke rap tailerrena. Lehen egunean, iritsi nintzenean, errezeloz hartu ninduten, ez nindutelako ezagutzen.

Hori aldatu al da?
Bai, eta azkar gainera. Ondo konektatu dut neskekin. Haiekin hitz eginda, eta sakonduta, jabetu naiz haien bizitza ez dela batere erraza izan. Baina nirea ere ez. Horretan bat egiten dugu. Barruan dauzkagun sentimenduak kaleratzeko erreminta da rap-a, hala izan da niretzat, eta haientzat ere izan dadin espero dut.

Zer egiten duzue tailerretan?
Raparen historia azaltzen diet, eta gero, metrika, errima eta gainerako elementuak ikusten ditugu. Abestiak aztertzen ditugu, eta sortzen ere ahalegintzen gara. Flamenkoan eta beste estilo batzuetan arituak dira neskak, eta fusio bereziak egiten ditugu batzuetan.

Zer da rap-a, zuretzat?
Nire bizimodua da. Hogei urte daramatzat rap-a egiten, eta gaur egun dena da niretzat, baita nire lanbidea ere. Nik aukeratu nuen bizimodua da, eta oso harro nago hautu horrekin.

90eko hamarkadan hasi zinenean, emakume bakarrenetakoa izango zinen Euskal Herrian.
Urtetan izan naiz emakume bakarra, baina zorionez, hori aldatzen ari da. Tailerretan ditudan emakume askok oso ondo idazten dute. Baina gero beldurra diote oholtzara igotzeari. Gizonezkoek lagun talde handi baten babesa edukitzen dute beti. Emakumeak, rap-ean oso gutxi izaten dira. Erreferenteak falta dira.

Gaztelaniaz hasi zinen, baina euskaraz ari zara gaur egun. Euskarazko rap-ean, are minoritarioagoa da emakumeen presentzia.
Gaztelaniaz hasi nintzen, nire inguruko errealitatea hori zelako. Nik euskaraz ikasi dut, baina familian, lagunartean, inork ez zuen euskaraz egiten. *Aire es vida* diskoa idazten ari nintzela, euskaraz saiatzeko gogoa sentitu nuen. Garai horretan ikusi nuen gizonezkoen taldeak euskarazko rap-a egiten ari zirela, eta nire buruari erronka jarri nion.

Eroso al zaude euskaraz idazten?
Niretzat oso zaila izan zen, hasieran, euskaraz idaztea. Kontuan hartu hamabost urte inguru eman nituela euskaraz hitz egin gabe. Koaderno pila bat ditut zirriborroz beteta. Hasteko, Aneguriarekin Trakamatraka egin nuen, eta irudi potentea izan zen: bi emakume euskarazko rap-a egiten. Harrera ona eduki zuen, eta bide horretatik jarraitzea erabaki nuen, euskara sustatzeko, eta emakumezko erreferenteak sortzeko. Azaroaren amaieran disko berria aterako dut, guztiz euskaraz, eta emakumezkoek egina, %100. Euskarazko hamar kantu dira, eta kolaboratzaile guztiak emakumezkoak. Nire buruari jarri nion helburua beteko dut horrela.

Nabarmendu nahi nuke, abenduaren lehenean, hizkuntza gutxituen inguruko festibal batean egongo naizela, Italian, Euskal Herria ordezkatzen. Horretarako rap abeslari bat aukeratzea ez da ohikoa izaten, eta oso pozik nago. Rap-arekin beste zirkuitu batean sartzeko modua da.

Ate batzuk ireki dizkizu euskaraz aritzeak, baina beste batzuk itxiko zizkizun.
Estatuko rap-ean noizbait eduki nuen tokiaren zati handi bat galdu dut, euskaraz aritzeagatik. Baina momentu honetan argi daukat egin nahi dudana. Ez dakit momenturen batean gaztelaniaz ariko naizen berriro. Baietz uste dut, nire oinarria delako, eta batzuetan beharrezkoa delako. Hala ere, oso pozik nago egiten ari naizenarekin.

Rap tailerrez harago, harremana duzu Irungo hip hop mugimenduarekin?
Urte pila bat daramat Irunera etortzen, Irungo hip hop eta reggae mugimendua erreferentea delako. Stepirekin, Bad Sound System-eko DJarekin grabazioak egin izan ditut. Ni gaztea nintzenean, Bilbokoak, Gasteizkoak eta Irungoak besterik ez geunden. Festibaletan elkartzen ginen, eta harremana oso ona izan da beti. Azken urteotan Fermin Muguruzarekin ere aritu naiz kantuan, eta esperientzia itzela izaten ari da.

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Bueltatu etxera Gazteen Itzulerarako Laguntza programarekin!

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lantokiek gazteak kontrata ditzaten, Eusko Jaurlaritzak Gazteen Itzulerarako Laguntzen deialdia onartu du.

Programa aitzindari honek kalitatezko lana sustatzen du, gutxienez 12 hilabetez beste autonomia erkidego batetan edo atzerrian bizi izan diren 35 urtetik beherako gazteak Euskadira itzul daitezen.

#GazteenItzulera

Gazteen Itzulera

GAZTE LOKALENTZAKO BITARTEKARITZA ZERBITZUA

Irungo iGaztek gazte lokalentzako bitartekaritza zerbitzua eta informazioa eskanintzen ditu.

- Aholkularitza Zerbitzua

- Bitartekaritza Zerbitzua

- Informazio Zubia

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte.

Astialdia biltzarra

Azaroaren 24an eta 25ean, Euskal Astialdi Boluntarioaren II. Biltzarra izango da Kutxa Kulturren, Donostiako Tabakaleran, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan.

Noiz? Azaroaren 24an eta 25ean.

Non? Donostiako Tabakaleran.

- ASTIALDIA BILTZARRA

Azaroak

16

Doku forum-a: Ordezkapen bidezko ernalketa

Zer:
Ordezkapen bidezko ernalketa izango dute eztabaidagai. Gaiaren inguruan dauden iritzi eta ikuspegi ezberdinak elkarren artean komunean jartzea dute helburu.

Eztabaidari abiapuntua emateko "VIENTRES DE ALQUILER: ¿DILEMA MORAL?" dokumentala proiektatuko dute; bideoak Indiako amen errealitatea erakusten du.

Non:
Kabigorrin.

17-18-19

Bigarren Automobilen Azoka

Zer:
Gipuzkoan dauden auto marka garrantzitsuen eta automobilaren sektoreko beste espresa batzuen parte hartzea izango da.

Ordutegia:
Ostirala: 16:00-20:00;
Larunbata-Igandea:
10:00-20:00.

Non: Ficoban.

Prezioa: Doan.

18

Bideo-forum-a: "Antonia"

Zer
"Antonia" pelikula jarriko dute.

Non:
San Miguel Gizarte zentroa
Javier Esteban Indart, 5.

Ordua:
17:00etan.

Prezioa:
Doan.

Antolatzailea:
Bidasoaldeko Elkarte Feminista.

19 abenduak 2ra arte

Emilio Lluisaren hitzaldia

Zer: Azaroaren 19an, Amaia KZan eskeinitako kontzertuaren ondoren, mexikar musikariak, musika eta matematikari buruzko hitzaldi bat emango du.

Ordua:
19:30

Non:
Ametsa Abesbatza Kultur Elkartea
Istillaga, 5 - behea

Prezioa: Doan.

azaroak 22ra arte

Mari Matraka erakusketa

Zer: Edurne Kortabarriaren Ilustrazio eta diseinu erakustaldia.

Ordutegia:
Asteartetik larunbatera:
17:00-21:00.

Non:
Martindozenea Gaztelekuan.

Prezioa: Doan.

"A fuego lento" argazki erakusketa

Egilea:
Alvaro Del Val Tobalina.

Non: Caser Residencial Anaka.

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera:
8:00-20:00; Larunbatak, igandeak eta jai egunak:
10:00-20:00.

Telefonoa:
943667780.

Prezioa: Doan.

12. edizioa!

euskal kostaldeko gabonetako azoka

abenduak 8 - 9 - 10. **FICOBA. Irun**

ostirala: 11:00 - 21:00 / larunbata: 11:00 - 21:00 / igandea: 11:00 - 20:00

KRUZERO BAT OPARITZEN DUGU!

ETA EROSKETA TXEKE, GABONETAKO LOTE ETA SASKIEN ZOZKETAK ORDURO!

Irudi informatiboak, ez kontratuzkoak / Zozketen arauak: expo.ficoba.org

#FeriaNavidad2017

expo.ficoba.org

P dohainik

Ficobara, zatoz trenean!
euskotren *(Irun-Ficoba geltokia)*

Antolatzaile

FICOBA

Avda. Iparralde, 43
20302 Irun-Gipuzkoa
+34 943 66 77 88
www.ficoba.org

Babesleak

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · ORAIN GIPUZKOA · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Ayuntamiento Udala Irun www.irun.org